

Urtzi Iriondo Bilbao Athletic taldeko jokalaria zeberioztarrari alkarrizketea

10. orrialdea

Argazki jaialdia Areatzan

Areatzako Udalak eta Bostok Photok Areatza Photo Fest jaialdia antolatu dabe. Aprilean zehar, beste ekitaldi askoren artean, argazkilaritzaren gaineko berbaldiak, mahai-ingurua eta tailerrak egongo dira eta arlo desbardinatuko izen handiko argazkilariak euren bizipenak kontauko ditue. Erakusketak be egongo dira taberna eta kaleetan. **12. orrialdea**



Itziar Zabala Euskal Herriko txapeldun bloke modalidadean

11. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

249

2016ko apirilaren 4a
hamabostekaria
www.begitu.org

Udabarria loratu da

Urtte sasoi honetan Gorbeia inguruko mendi eta zelaiak loraz beteten dira. Belen Lopez Astondoa argazkilariak gure eskualdean ateratako udabarriko loren argazki bildumea bialdu dau. Basoetako

mingotsa, gibel bedarra, korradu bedarra, lilipa, malba arrunta, oroiorea, pasmo bedarra, eszila, txilar kantauriarra, ostioska eta orkideak ezetuteko euren argazkia eta fitxa dagoz. **8. eta 9. orrialdeak**



Pasmo bedarra.

Arratiako Aste Internazionalista



A skapenak eta Igorreko Udalak Aste Internazionalista antolatu dabe, gaur egun indarrean dagozan hainbat gatazkaren errazoiak eta ondorioak ezetuten

emoteko. Brasilgo Nekazal Mobimentua, Siriako gerra eta Ukrainako gatazka armatua landuko dabez Igorren apirilaren 4tik 10era bitartean. **5. orrialdea**

ZEANURI

Mazalak herriko andren memoria jasoko dau



Zeanuriko andren historia berreskuratzeko asmoz, Mazala andra taldeak memoria proiektu bat ipini dau martxan eta gerra eta gerraostea jasoko dauan dokumentala egiteko sasoi hori bizi izan eben andrak alkarrizketatutun dabil.

Martian, argazki erakusketea egin eben, herriko jentek itxitako 1960 baino lehenagoko erretratuak. Erakusketek arrakasta handia izan eban. **7. orrialdea**

ARANTZAZU

Aurrekontuak onartu ditue

Martiaren 22an onartu ziran EH Bilduren aldeko eta EAJ-PNVren kontrako botoakaz. Kontuok, 444.341 euro aurreikusten dabez sarrera eta gastuetan.

Aurtengo kontuetan, frontoi inguruko eskailerak konponduteko dirua dago. Izan be, inguru hori umeen olgetako lekua da, eta horregaitik, aurten, konponketari lehentasuna emon deusie. Saneamenturako eta eraginkortasun energetikoa hobetuteko be diru partidak aurreikus-tun dira. **7. orrialdea**

10 urteko ibilbide hau egiten lagundu gaituzuen guztioi, eskerrik aska.

Baserriai eta herriari bizia emoteko, bertoko produktuak

San Isidro 2 • Zeanuri • 94 631 79 45

UBIDE

Plan Orokorra aurrera doa

Plan Orokorri begira ikerketa soziologikoa egin eben Ubiden 2015ean eta orain ondorioak ateraten dabil. Hurrengo pausak, ikerketa soziologikoaren ondorioak txosten baten biltzea eta Plan Orokorren aurrerapen fasea idazteko taldea adjudiketea izango dira. Eta, "ahal dan neurrian" herritarren parte hartzea bermatzea Josean Pagola Ubideko alkateak BEGITU azaldutakoaren arabera. Orain arteko herritarren parte hartzeari jagokonean, profil barriak be egon dirala dino alkateak. **5. orrialdea**



ARRATIA ZURI-BALTZEAN

DIMOZTAR BAT BI BIDER BILBOKO ALKATE. SANTIAGO MARIA INGUNZA ZAMAKOLA (1787-1869) (III)

1867an Santiago Maria Ingunkak larogei urte bete ebazan, eta iraultza asko ikusi ebazan arren bere bizitza luzean, beste bat ikusi eban hurrengo urtean, Isabel II.a Lekeition uda pasetan egoan bitartean, 1868ko Urri lehenengoaren iraultza, Prim Topete eta Serranoren gidaritzapekoa, eta Isabel II.a tronotik kendu ebana. Behin-behineko Gobernua egon zan eta karlistak ostera Espainiako tronurako kandidato Karlos VIIa euki eben, Doña Margaritaz ezkondu ordurako. Hau holan, behin eta barriro gerrarako deialdiak egiten ebezan edonondik. Egoera politikoa holan egoala, 1869ko urtailaren 27an, Bilbon, Bidebarrieta kaleko 7. zenbakian Santiago Maria Ingunka Zamakolak mundu hau itxi eban eta Mallonako



Bizkaiko Institutua eta Iturribideko sarrerea.

ortusantuan lurperatu eben.

Migel, Santiagoren semea, abogadua zan eta Bilboko Udaletxean idazkaria, 1870ean karlistak altxaketea prestatu eben. Honetan

Gernikan aukeratutako diputaduak estadu golpe bat emoteko konprometiduta egon ziran, horregaitik gobernadoreak "hatzamarrez" beste Gobernu bat izentau eban

Bizkaiko Jaurerriako eta honetan idazkariaren zeregina Migel Ingunkak bete eban.

Karlistak gero eta gehiago auzartu ziran armen bitartez tronoa eskuratzen eta 1872an ostera Amadeo Saboiakoaren aurka altxatu ziran, baina kale egin eben. Dana dala, porrotaren ondoren Amorebietako Itunaz, amnistia emon eutseen bertan ibilitakoai. Azken altxaketa 1873an hasi eben eta gerrea amaitu arte gertaerarik esanguratsuen Bilboko Setioa izan zan. Bestalde, Kastor Andetxagak 1874ko urtailaren 22an Portugalete hartu ondoren, Karlistak Bilboko inguruetako mendietan euren kainoiak jarri ebezan eta zezeilaren 22an bonbardaketak hasi. Ondorioz hilaren 28an, Jardines kaletik bonba bat sartu zan Bidebarrietako 7.ean eta Juana Bautista Libarona Artaza, Ingunkaren alarguna, salan egoala hil eban.

Lehenago, Bidebarrieta eta Jardines artean egoan etxe honetan bizi izan zan Migel Zamakois

(1794-1863) irakaslea bere seme-alabakaz, gehienak artista eta idazleak izan ziranak. Familia honetako batzuk bertan jaio ziran, euren artean ospetsuena Eduardo Maria Zamakois Zabala (1841-1871) margolari trebea. Hementxe bizi izan zan be Seberino Atxukarro (1841-1910) arkitekto loriatsua eta baita Nikolas Atxukarro (1880-1918) osagile eta neurologo jakintsua. Etxeko lonjan orduko urteetan Juan E. Delmasen inprentea, liburudendea eta litografia egon zan, baina etxe zaharra bota ondoren, bere lekuan, 1883an Julio Sarazibarrek diseinutako eta gaur oraindik zutik dirauan etxe dotorea eregi eben. Gaur egun tamalez, turismorako neurologoaren izena brontzeko plaka baten aitatzen dan bakarra da eta besteak ahazturik geratu dira. Esandakoagaitik beraz, hemendik aurrerantza danok jakingo dabe hemen dimoztar bat bizi izan zala, Santiago Maria Ingunka Zamakola, euskalduna eta bi bider Bilboko Alkatea.

Iñaki Esparza

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Aprilaren 4tik 10era

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1

Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Aprilaren 11tik 17ra

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7

Tel.: 94 631 73 11

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Aprilaren 18tik 24ra

Rodriguez Martinez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27

Tel.: 94 673 61 09

22:00etatik 09:00etara

Iruarrizaga. Amorebieta-Etxano.

Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan**22:00etatik 09:00etara**

Lucia Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara

30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordu behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago

zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Arriorriaga

Arteatik urteerak lanegun eta zapatuetan

06:55ean eta 13:55ean.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik ez.

Zeberio-Arriorriaga

Lanegun eta zapatuetan 07:10, 08:10, 09:10,

11:10, 14:10, 15:10, 16:10, 18:10, 19:10, 20:10

Jai egunetan 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arriorriaga-Zeberio-Artea

Arriorriagatik 12:40ean urtetan dan zerbitzua Artearaino heltzean da lanegun eta zapatuetan.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Arriorriaga-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan, 07:40, 08:40, 10:40,

12:40, 14:40, 15:40, 17:40, 18:40, 19:40, 20:40.

Jai egunetan, 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union* 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau

eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.

Babesleak:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Irati Urien.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.

Publizidatea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Marta Rodriguez, Pablo Rodriguez eta Rut Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Esti Olibares, Igor Perez eta Azibar Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tirada: 7.000 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derri-gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Haxe dozu helbidea:

Zertu Kultur Elkartea

BEGITU aldizkaria

Herriko Plaza 24

48.142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Ostondu



Begien bistatik gorde edo agirian ez dagoanari ostonduta dagoala esaten jako. Arratian hainbat erataria jaso dogu berba hau: ostondu (ostóndu, agoskatuta), ostoldu, ostendu eta ostandu. Batuaz, ezkutatu da. Ostondutera, hau da, lagun bat ostondu eta besteak topau egin behar dauan umeen olgetearentzat honako berba honeek erabilten dira gure inguruan: ostanka, ostondika (biak Diman jasoak), ostonosteka (ostón-ostéka, agoskatuta), oston-ostenka (Zeanurin jasoak), oston-ostonka eta kuika.

ERETXIA

Karisma eta indarra

Tsunami mediatiko baten erdian atxilotu eben Arnaldo Otegi. Orain dala ez hainbeste urte, Euskal Herrian gaur alderdiak, bihar egunkariak eta etzi jentea ixten ziran legez kanpo. Orduko atxiloketen osteko epaiketak orain bizi doguz, baina esaten joan nazena: atxilotu ebenera arte, Otegi zan atxilotzeko gelditzen jaken bakarra. Danetarik entzun genduan batzar haretan harrapatu eben jentearen gainean: Manolete hil eban zezenetik hasi, eta hirugarren mundu gerra antolatzeko prest egoan talde terroristara arte kate luze bat lotzean ibili ziran Espainiaren batasunaren kontra.

Urteak pasau dira, eta urteotan ez dira gauzak gitxi aldatu. Denpo-reak, edurra mendian lez, erakutsi deusku zein izan dan orduan egin ziran batzarren emoitza: Aiete, ETArean suetena, legalizazinoak... eta batzar hareetan ez zan Otegi bakarrik ibili, ibili ez zanez, kartzelara be ez eben bakarrik eroan, baina bera izan da munduari erakutsi jakon aurpegia, eta urten badau, urten dau ba kartzelatik!

Urtekeran tsunami mediatikoari soziala gehitu jako. Jentea itxaroten egon da: Arnaldo datorrenean desbardina izango da, Arnaldo lehendakari... Tira! Ez dot nik esango Otegi lehendakaria izan behar dauan edo ez, baina hori lehenengo militantziaren artean erabagi egin behar da, gero estrategia sendoa asmatu behar da eta kanpaina txukuna egin eta gero jentea botoa emon behar deutso. Gauzak ez dira beste barrik etorten, eta Arnaldo Otegi ez da bere buruaren errepresentante hutsa; halandaze, Ezker Abertzale indartsua behar dau halako figura batek.

Euskal Herria independentea izango bada, ez da persona bakarren ekinagaitik izango, baina airtzen dot, Belodromoan eskertu egin nebala Otegi berbetan entzutea. Onartzen dot ahaztuta ne-



ONINTZA ENBEITA

EH Bilduko diputadua
Espainiako Gorteetan

kala ze karisma eta komunikazino gaitasun daukan, eta irribarre txiki bat egin neutsan neure buruari "eskerrak desentrenauta dagoan" pentsauta. Euskal Herriko panorama politikoa orokorrean, falta dauz politikari onak eta neuk ordezkaten dodan alderdi berekoa izatea hutsune hori bete leiken personea, harro egotekoa da.

Baina, batez be, Arnaldoren tsunamiak ilusinoa ekarri dau. Ni ez nintzan Elgoibarren egon,

baina Belodromokoa itzela izan zan. Esandakoak, kantautakoak, jantzatutakoak... onak izango ziran, baina inguruan jesarritakoen barreak, negarra, urduritasuna, zarata egin beharra... aspaldi ez neban holako ilusinerik igarten inguruan. Bai! Hau da falta jakuna, pentsau neban, ilusinoa. Eta hori Arnaldok badakar, ondo etorri Arnaldo! Eta ez badakar, ondo etorri bardin-bardin. Kartzelan ez dogu inor behar eta.

Dinoe Arnaldori buruz berbetan gabizanok debaldeko propagandea egiten gabizala. Halan bada, nik ez dot parkamenik eskatuko: haren propaganda mesede dot eta. Kontua da, zer dan propaganda horretan min emoten dauana, eta nago, arazoa dala, ilusino horren berbiztea. 2011ko maiatzean eta zemendian EH Bilduk transmitiduten eban indarra eta ilusinoa zapuzteko tsunami mediatiko handia jarri behar izan da martxan; Arnaldo erroteko behar izan ebena baino handiagoa. Barriro makinaria guztia martxan jartzea asko da eurentzat, eta Ezker Abertzalea eta EH Bildu indartsu badagoz, eusteko moduko olatua da guretzat.

Ilusinoa behar dogu gure proiektu politikoa espliketako eta zuzena dala frogatuteko. Hondakinak atez-ate batzea ez da anekdota, erreforma fiskala, euskerea, hezkuntzea, kulturea, presoak, ingurumena, feminismoa, independentzia, lanaren eta aberastasunaren banaketea... gauza serioegiak dira eskumaren edo espainolen eskuetan bakarrik ixteko. Estrategiak findu eta maiaian golpetxua emoteko ordua da, goazen joan behar dogun lekura. Sentitzen dogu Lehendakari Jauna, EAJ, PSOE, PP, Podemos eta esango ez dodazan beste asko: gu Euskal Herrian libre biziteko prest gagoz. Arnaldogaz edo beste edonogaz. Liderrak karisma aportetan dau, komunikazino egokia, baina indarra eta ilusinoa herri guztiaren armak dira. Eta Arnaldok erakutsi deuskuna da hor dagozala beti bai indarra eta bai ilusinoa, botoia aparetea baino ez dogula falta azalera atarateko.

LUMATUTEN



URTZI BARRENETXEA

Isil-isilik

Badagoz gizarteko sektore batzuk zeozer esan gura eta isiltzera derrigortuta dagozanak, badira be adierazotakoaren erantzun lez isiltasuna jasotakoak. Horreek danak bilatu ez daben mututasunera kondenauta dagoz.

Gertaera paradoxikoak dirala esango neuke; izan be, ostantzeko dana da zaratea gaur egungo munduan. Nik, behintzat, halan ikusten dot; gero eta gatxagoa egiten jata isiltasuna topetea. Pentsetan neban gure artean bizi zala; non bizi zan jakitea erreza izango zala bisita bat egiten joateko, edota, gura izan ezker, deitu eta esaneko txakur bat lez hanketara etorriko zala.

Oin, ume txikiak daukadazala eta garapen osasuntsurako isiltasunak eta atsedanak daukan garrantziaz erdi jakitun nazala, ikusi dot ez dala hain kontu erreza halango tarte bat topetea. Isiltasuna joan egin da gure artetik, edo txokoren baten ostendu: fabrikak, autoak, motor uzkertiak, oihuak, musika etenbakoak... Zaratearen

inperioak ez dauka mugarik ez ordutegirik gurean.

Planeten arteko espazio infinituan, barriz, isiltasuna da nagusi, Hollywoodeko pelikuletan behin eta barrero egin arren akats zaratsu bera. Hemen, ostera, kontrara: Lurraren altxor nagusia ura dan lez (diamanteak baino ondasun urriagoa eskala unibersalean), gure planetearen zaborrik handienetakoa zaratea dalakoan nago.

Eta txarrena dana: guztiz barneratuta daukagu isiltasun faltearena. Baten bategaz gagozanean, urduritu egiten gara eta, zelan ez, eguraldia komentetan hasten gara.

Lagun artean be ezin agoa zarratuta egon. Erasmok esaten eban benetako adiskidetasuna lortzean zala kide bien arteko isiltasuna atsegina bihurtuten zan momentuan. Guk, barriz, zer esanik ez daukagunean, futbola (gustau ez arren) edo telebistako azkenengo umekeria aitatuten dogu, momentuaz gozatu beharrean.

Halanda be, ez dot galdu itxaropena; baleike, egunen baten isiltasuna topetea. Gitxiengo espero dodan momentuan izango da, mendi punta edo kale ezkinaren baten. Baina orduan be, artega egongo naz ia baten bat agertu eta hor hasiko ez ete jatan "Egun on. Zelango egune, e!?"

ZERTZEAN



ANGEL LARREA

Poema sozial bi honeek gure munduak bizi dauan globalizazioaren gaurkotasunean oinarrituta dagoz.

Gaiak jarrita: Giza eskubideak eta baloreak zalan-tza larrian jarri dira Mediterraneo Itsasoaren inguruko herrialdeetan.

MEDITERRANEOA

Mediterraneoaren urak,
arima amesgile askoren bideak;
Mediterraneoaren ondoko lurraldeak,
hizkuntza-kultura-zibilizazio klasikoen
eta

erlijio monoteisten sorlekuak;
Mediterraneoaren inguruan jaiok,
inperio handien zerbitzari kementsuak;
Mediterraneo: itsaso ia hertsia,

itsaso franko zikindua,
altxor historiko-artistikoa;

Mediterraniarren arteko arazo anitz, gerrak...,
nahi eta desio komuna baina:
den-denon patrimonioa dela Mediterraneo!

PALESTINA

Herri baten sufrimenduaren paradigma,
Palestina, gure bihotzetan zaude aspalditik!
Palestina arabiar-musulmana, baita kristaua ere!
Belen, Nablus, Ramala... palestinarren hiriak,
lur joriak; uraren eskasiagatik, agortuak.
Errefuxiatu-zelai latzetan egoten beharturik,
zenbat palestinar, zenbat pobrezia eta umilazio!
Etorkizuna, hala ere, zure seme-alabengan dago:
ziur, euren lurraldea askea eta duina izango da!
Herriarren harrotasuna eta itxaropena,
azken finean, herriaren libertatea ezagutzeko,
auzo juduekin akordioa betearazteko,
harresiak egon arren, egin aurrera
eta lortu edo sinatu **BAKEA!!**

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak beginu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Otzarretako pagadi ederrean ospatu eben Zeanuriko eskolakoak Zugatz Eguna. Udabarria da. Eta zugatzen sasoaia, urte osoan zehar bada be, denporea epel dagoanean, zugatz artean astiro ibiltea sano atsegina da. Biziteko beharrezkoak dira basoak, pagadi ederrak, ze oso ezaguna dan eskutitz haretan Seattle indiarren buruzagiak Estatu Batuetako presidenteari esan eutsan moduan, basoak desagertzen diranean, "bizitza amaitu eta biziraupena hasten da".

Zugatz Egunean, Zeanuriko eskolakoak ibilaldirtoa egin eben Gorbeiaiko pagadi ederren artean, eta basozainak pagoen gaineko informazio interesgarria emon eutsen jakitera: inausketea zelan egiten dan, antxina zertarako erabilten eben pagoen egurra... Umeak, paraje honetako argazki ugari dagozala interneten komentau eben.

Ondoren, atxurak hartu eta zugatzak landatu ebezan Saldropon. Aurreko urteetakoak zenbat hasi diran eta osasuntsu dagozan ala ez ikusteko aukerea be izan eben Zeanurikoak. Udalak eskeinitako hamaiketakoan jan eben ondoren. Ondo merezidutako hamaiketakoan izan zan, basoak ezetu eta osasuntsu mantendutearen aldeko beharra egin eben eta.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

Zugaitik BEGITUTen dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com

Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre
Tfnoa: 94 631 80 04

24h
EGUNEKO OGIA
vending pan
IGORRE
Lehendakari Agirre

IGORRE

Arratiako Lehenengo Aste Internazionalista antolatu dabe Igorren

Erredakzinoa

Aprilaren 4tik 10era bitartean, Arratiako Lehenengo Aste Internazionalista antolatu dau Askapenak Igorreko Udalaren laguntzeagaz. Egun horreetan, gaur egungo hainbat gatazka azaltzen dabezan dokumental eta berbaldiak eskeiniko ditue Igorreko Kultur Etxean eta Axular Herriko Tabernan.

Lehenengo egunean, aprilak 6, Brasilgo Nekazal Mobimentua eta MSTren esperientziaren barri emongo dabe Axular Herriko Tabernan, 19:30ean.

Hurrengoan, barriz, Gabirel Ezkurdia politologoak Siriako gerra eta ondorioen gaineko berbaldia egingo dau Kultur Etxean, gai honen inguruko bere ikuspuntua azalduz. Siriako gerrea 2011n hasi zan, Arabiar Udabarriaren testuinguruan hasikera baten, eta giza eskubideen aldarrikapena zan. Denporearen podesuz, oster, nazinoarte esku hartze zabaleko gerra zibila bihurtu da, eta gatazkaren nazinoartekotze horrek, latzago egin dau gerrea eta gatxago, urtenbidea topetea. Gerrearen ondorio lez, inoz izan-

dako igeslari kopururik handiena sortu da, UNHCR -lheslariantzako Nazino Batuen erakundea- sortu zan ezkeretik. Siriarrak, Europak atearatzen deuts bitartean, gerratik igesi guran dabiz.

Aprilaren 8an, Ukrainan gertatzen danaren barri jakiteko aukerea egongo da Lasarte Aretoan. Izan be, *Donbass: Gerra Europaren bihotzean* dokumentala emongo dabe, Ibai Trebiño zuzendariak aurkeztuta. Dokumental honetan Mikel Arregi eta Ibai Trebiño kazetariak Ukrainan gertatzen dabilana kontetan dabe giza ikuspuntu batetik. Gatazka honetan be hildako eta igesi joandakoak, asko dira.

Bazkaria Gaztetxean

Zapatuan, aprilak 9, ekitaldiak goizeko 12:00etan hasiko dira gosarberbaldi batez Axular Herriko Tabernan. Bertan, Gustavo Rodriguez egongo da. Rodriguez Caracas uriko

23 de enero auzoko eta Simon Bolivar koordinakundeko kidea da.

Ordu bata t'erdietan kalejireta eta ostean herri bazkaria Kiñu Gaztetxean. Asteari amaiera emoteko, arrastian bakarlarikubatar batek emonaldia eskeiniko dau.

Bazkarirako tiketak Axular Herriko Tabernan eta Errugbi tabernan erosi daitezke Igorren, Diman Jentilzubi tabernan eta Zeanurin Txoko Sagarnan.

Astean zehar NATOren inguruko argazki erakusketea egongo da Axular Herriko Tabernan.



Gabirel Ezkurdiak emongo dauan berbaldiaren kartela.

UBIDE

Plan Orokorraren aurrerapen faseari ekiteko enpresea kontratauko da hileon

Erredakzinoa

2015eko udagoienetik ikerketa soziologikoa egiten dagoz Ubiden, Plan Orokorra abian ipinteko baliagarri izan daitekeana; hau da, Ubidek dituan baliabide eta ezagueriak jakiteko eta herritarrak gura daben herria egin ahal izateko. Plan Orokorraren prozesua gidatuko dauan enpresearen esleipena egiteko pleguak prest egozan martiaren 22an, "ikutu batzuen faltan", Josean Pagola Ubideko alkatearen arabera. Holan, apirilaren



Ubide.

aurrerapen fasea erredaktetan has-teko taldea kontratatea espero dau Udalak.

Ubiden igaztik dagoz beharrian Plan Orokorrari begira. Herrian inkestea eta foroa egin dabez eta orain ondorioak ateratzen dabiz Ondoa enpresearen gidaritzapean. "Parte hartzearen balorazioa balekotzat emoten dogu, beti gura izaten dogu parte hartze handiagoa, baina dagoana dago. Azken batzarretara herritarren profil barriak agertu dira eta oso aberasgarria izan da" dino alkateak.

Hurrengo pausuak, ikerketa soziologikoaren ondorioak txosten baten biltzea eta Plan Orokorraren aurrerapen fasea idazteko taldea adjudikatea izango dira. Eta, "ahal dan neurrian" herritarren parte hartzea bermatzea.

DIMA

Jaietako Kartel Lehiaketeta

Erredakzinoa

Dimako Jai Batzordeak lehiaketeta zabaldu dau 2016ko jaietako kartela eta zapiaren irudia aukeratzeko. Lehiaketara aurkeztu diran lanetan testu hau agertu behar da: Dimeko Jaiak 2016. Bagilaren 29tik garagarriaren 3ra. Aprilaren 29ra arte aurkeztu ahal izango dira lanok udaletxean.

Irabazlearen izena maiatzaren 6an emongo da jakitera udal-tereko tabloian eta webgunean be argitaratuko da. Irabazleak Dimako tabernaren baten afaria izango dau sarizat.

Arratia
Ubide eta Zeberioko
Euskerea
eta kulturearen alde

Egin zaitez zeu be

Hamabostero
begitu zeure etxean

Eltxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarteak ateratako produktuak.

Hamabostean behin sari itzelen zozketan parte hartuko dozu.

Zertu Kultur Elkartea,
Herriko Plaza 21, 20112 Artea

Izen-abizenak:
Izenbidea:
Herria:
Telefonoa:
E-posta:
Urteko kuota aukeratu: 35€ 55€ 75€

begitu

ARRATIA

Arratiako Andren Jabekuntza Eskolari buruzko jardunaldia

Erredakzioa

Arratiako Andren Jabekuntza Eskolea martxan ipintean sortu daitezkeen galdera eta zalantza erantzunak topatzeko asmoz, Arratiako Udala, andra alkarte eta talde feministen Sareak, Jabekuntza Eskolen gaineko jardun-

naldia antolatu dabe apirilaren 16rako. Jardunaldia Igorreko Kultur Etxean izango da goizeko 11:00etatik aurrera.

Bertan, beste herri batzuetako esperientziak kontetako Bizkaiko Jabekuntza Eskoletako Teknikaria,

ikasleak eta prestatzaileak egongo dira, informazio hau lagungarri izango dalako Arratiako Andren Jabekuntza Eskolea gauzatzeko.

Antolatzaileak Arratiako neska eta andra guztiak animau gura dabez jardunaldian parte hartzera.



ARRATIA

Errefujiaduen harreraren aldeko taldea sortu gura dabe Arratian

Erredakzioa

Errefujiaduen harrerarearen aldeko taldea sortu guran, hori gauzatzeko batzar batera deitu dabez arratiarrak. Batzarra, apirilaren 14an, arrastiko zazpi t'erdietan izango da Igorreko Kultur Etxean.

Europak hartutako ebatzien kontra eta gerratik igesi doazen errefujiaduen egoera latzaz jabe-

ONDO ETORRI ERREFUXIATUAK



2016.04.14 - 19:30
Igorreko kultur etxean



tuta, herri askotan hasi da antolatzen jentea errefujiaduak lagun duteko. Arratian be horretarako taldea sortu gura dabe hainbat herritarrek.

LEMOA

Bigarren eskuko azokea

Erredakzioa

Lemoako Udalak Bigarren Eskuko Azokea antolatu dau apirilaren 17rako, "persona batek gura ez dauana, beste baten altxorra izan daitezkelako" lemapean. Azokea Elizondon izango da 11:30etik 14:00ak arte.

Bertan gauzak saltzeako izena emon behar da udaletxean alde aurretik. Hilaren 13ra arte emon daiteke izena bigarren eskuko azokan parte hartzeako.

ZEBERIO

Hondakin solido handiak batzeako eguna

Erredakzioa

Aprilaren 25ean, tamainu handiko hondakin solidoak batuko ditue Zeberion; hau da, altzariak, sofak, koltxoak eta abar.

Zerbitzua erabilteko interesa daukienak, udaletxera deitu behar dabe apirilaren 21a baino lehenago izena emoteko.

DIMA

Axpe Goikoak txakolin bazkaria antolatu dau apirilaren 9rako

Erredakzioa

Axpe Goikoako txakolina dastatzeko, bazkaria, bazkalaurrea eta bazkalostea antolatu dauz Lamindaoko jatetxeak. Herri-kirolak eta jantzariak bazkalaurretik eta erromeriak ostean girotuko dabe dastaketea.

Eguerdiko ordu batetan, aikolariak, harrijasotzaileak eta

jantzariak egingo dabez erakustaldiak, bertaratutakoak txakolina eta kanapeak dastatu bitartean. Bazkaria be txakolinaren inguruan pentsauta dago eta berrogei euroko prezioan, Axpe Goikoa krema makailoagaz, lebatza, artoa eta, postrean, tostadak jan leitez.

Bazkalostean erromeria egongo da Jokaldi taldeagaz.

ARRATIA

Arratiako eskoletako 6. mailakoak Institutua ezetuteko topaketak egin ditue

Erredakzioa

Arratiako Gazteen Gurutze Gorriak (AGG), 2015ean Alkarregaz proiektua ipini eban martxan. Proiektuaren helburua Arratiako LH 6. mailako nerabeen arteko hartu-emonak bultzatzea da, lehen hezkuntzatik DBHrako (Institutura) etapa aldaketa honetan, lagunduteko asmoagaz.

Alkarregaz, hilean behin, zapatuetan, burutzen da urtailetik maiatzera bitartean. Aurten, daborduko, hiru topaketa egin ditue. Urtailean, Arratiako eskoletako LH 6. mailakoak Institutuan egon ziran eta Hektor Rodriguez Institutuko zuzendaria be bertan egon zan umeai ondoetoria emoten. Zezeila eta martiako

topaketak be Institutuan izan ziran, eta ikasleak jolas kooperatiboak eta ginkanak egin ebezan alkar ezetuteko. Hartu-emon horreek sendotuteko, Mundakara joango dira apirilaren 23an, eta maiatzaren 21 eta 22an astegoen pasa izango dabe Barriako (Araba) aterpetxean.

Topaketa honeetan 80 umek hartzean dabe parte.

Proiektua

Proiektua, Arratiako eskola txikietatik, institutu handi batera aldatzeak suposatzen dauan ezjakintasun eta bildurak gainditzeko asmoagaz sortu eban AGGk, eta aurrera erroteko Arratiako Institutu eta eskolen arteko alkarlana ezinbestekoa da.



Alkarregaz proiektuko ikasleak.

ARRATIA


Uste dozu arratiarrak txofer onak dirala?

Erredakzioa

Arratiarrak asko erabilten dabe kotxea. Baseri eta auzune askotakoak egunero-egunero behar izaten dabe kotxea beharrera joateko edo herrigunera bajatuteko. Zure ustez txofer onak dira/gara arratiarrak?

- a) Bai. Kontuan izanda kotxeen erabilera, istripu gitxi dagoz.
- b) Batzuk bai, beste batzuk ez hainbeste. Kotxe asko egoten dira txarto aparkauta eta kopa batzuk hartuta gidatzen dauana be badago.

Inkesteari erantzuteko sartu www.begitu.org gure webgurean.



Whatsapp barik bizimodua aldatu behar

Whatsapp barik geratzeak eragina izango leukela euren bizimoduan esan dabe inkesteari erantzun deutsien % 75ek. Erantzun dabenen erdiak, beharrerako be erabilten dau whatsapp eta beraz, familiagaz eta lagunakaz komuniketako modua aldatuteaz gainera, behar egiteko modua be aldatu beharko leuko whatsapp barik geratu ezkeru.



ARANTZAZU

Frontoiko eskailerak konponduko dabez aurten



Aurrekontuetako plenoa.

Erredakzinoa

Martiaren 22an onartu ziran Arantzazun 2016ko aurrekontuak EH Bilduren aldeko eta EAJ-PNVren kontrako botoakaz. Kontuok, 444.341 euro aurreikusten dabez sarrera eta gastuetan, igaz baino 19.400 euro gitxiago. Gastuen artean, frontoiko eskailerak urbanizetan hasteko diru partidea dago.

Frontoi inguruko konponketea egiteko dagozan 18.000 euroak ez dira nahiko izango eta lanak faseetan egingo dirala azaldu deutso BEGITURI Igor Menika Arantzazuko alkateak. "Hor dagoz eskailera batzuk losak solte daukazanak. Losa guztiak soltau eta beste batzuk ipini behar dira" dino Menikak. Inguru horretan frontoiaz gainera umeentzako parkea be badago eta umeak minik ez hartzeako hori konpondutea garrantzitsua dala dinoe udal gobernua eta oposizioak. Sa-

neamenturako be 20.000 euro eta eraginkortasun energetikorako 15.000 dagoz aurreikusita.

Igaz Udalkutxari 15.000 euro bueltau izan behar eutsan Arantzazuk eta aurten be diru gitxiago jasoko dau Foru Aldundiko Udalkutxatik. Dana dala, Arantzazuk ez dauka zor finantziariorik eta aurreko urteetako kontuak be antzeko diru kopurua kudeatu dabe.

EAJ-PNVren desadostasuna

Bego Llano EAJ-PNVko zinegotziak, orokorrean, udalgobernuak dirua erabilten dauan moduagaz ez datozala bat esan eban. Aurrekontuak zuzenketarik ez, baina proposamenak egin eutseezan oposizionoak. Horreen artean, eskaera gitxi jarri duera kultural bat berraztertzea eskatzen eban eta eraginkortasun energetikorako eguzki energiako kale-argiak non ipiniko diran itaundu eban.

ZEANURI

Andren memoria jasoteko dokumentala egingo dau Mazala andra taldeak

Erredakzinoa

Zeanuriko andren historia berreskuratzeko asmoz, 2015ean, Mazala andra taldeak memoria proiektu bat ipini eban martxan. Hori dala eta, etxez etxe jasotako 1960 urtera arteko 150 argazki baino gehiagoraz, erakusketea egin eban martxan; orain, gerra sasoko eta gerrosteko andren testigantzak jasoten dauan dokumental bat egiten dabil, BFAk emondako diru laguntzeagaz.

Proiektua, denporeak estututa sortu zala dino Karmele Beobide Mazalakoak, "gerra denporako andrak hiltzen joiazala edo bestela ez zirala gai gauzak kontetako ikusi genduan eta hori jasoteko beharra sentidu genduan. Hortik sortu zan dokumentala egiteko proiektua". Dokumentalak gerrea eta gerraostea jasoko dauz. Gaur egun Zeanurin bizi eta kontau ahal daben andrak, umeak ziran gerra garaian eta gerraosteko eskolaren gaineko lekukotasunak

be jasoko dauz dokumentalak.

Irati Urien kazetaria eta Ainhoa Mendia arduratuko dira dokumentala egiteaz. Mazalak erakusketarako batutako argazki batzuk be dokumentalean txertatzeko asmoa daukie. Grabazioak egiteko Mazalakoak zubilana egin dabe lekukotasuna emon leikien andra eta teknikarien artean. "Gure asmoa da ahal danik eta testigantza gehien jasotea eta gure andrak zelari bizi izan eban sasoi ha azalduten dauan dokumentala egitea. Kasu batzuetan, gizonetako be zeozer esateko badaukie hori be jasoko dogu. Eta material hori gorde egingo dogu baliogarria izan ahal dalako beste gauza batzuetarako" azaldu deutso BEGITURI Beobidek.

Gazteak orduko barri izatea be garrantzitsutzat jotzen dau Amaia Mendibilek. "Guk, akaso, entzunda daukagu etxean, baina jente gazteak ez. Eta historia jakitea, kultura da, eta oso inportantea dala uste dot".

Erakusketeak arrakasta handia

Martiaren 4tik 12ra egon zan ikusgai *Gure andrak gogoan* argazki erakusketea Zeanuriko Kultur Etxean eta arrakasta handia izan eban Mazalakoen arabera. "Jenteak parte hartze handia izan dau, 150 lagun inguru etorri ziran erakusketea ikusten. Eta batzuk bi edo hiru aldiz etorri dira. Edadeko jentea izan da batez be" dino Mendibilek.

Bertan, gitxi gorabehera 1.960 urtera arteko argazkiak egon ziran, batzuek orain dala 100 urte aterakoak. Argazkiok, XIX. gizaldiko amaieran eta XX. mendeko zati handi bateko andren bizimodua erakutsi eban. Andrak beharrez, jaietan, familian eta kuadrillan agertzen ziran bertan. Erlijioak orduko bizimoduan eukan garrantzia be ikusten zan erakusketan.

Mazala

Mazala andra taldea 2005ean sortu zan. Harrezkerotik, eta andrentzako gune bat sortzeako helburuagaz, mota askotako ikastaroak antolatu dabez: barretaria, sabel jantza, eta momentu honetan, gimnasia hipopresiboa, barbarako. Momentu onean dago taldea, idea eta proiektu asko ditue martxan eta Andren Jabekuntza Eskolan parte hartuko dabenez, etorkizunari baikor begiratzen deutse Mazalakoak. "Lanean gagoz, hainbat idea daukaguz eta pilo bat gauza egiten dogu; baina konbidau egingo neukez herriko andrak, edade guztietakoak, gaztetxoak be bai, gure taldean parte hartzean. Zenbat eta ugariagoak izan, dantzat aberasgarriagoa izango da eta" dino Amaia Mendibilek.



Gure andrak gogoan erakusketea.

ARTEA

Kultura dimanizetako prozesua aurrera doa eta bide erdian dago

Erredakzinoa

Arteko kultura dinamizetako prozesua aurrera doa heritarren parte hartze handiagaz. Aurkezpenaren ostean, hiru saio egin ditue arteztarrak Alex Carrascosaren gidaritzapean.

Lehenengo saioan, Gogoa izenekoan, partaideak, zelango kultura gura daben; hau da, asmo kolektiboa bilatzen saiatu ziran. Asmo hori gauzatzeko dituen aukerak, oztopoak, estrategiak eta baliabideak aztertu ebezan 35 lagunek.

Saio horretan, hartu-emonen kalidade eta berotasunari (ilusinoak, eskuzabaltasuna, positibotasuna, irekitasuna), talde-lanari eta jakintzen alkarbanaketari eta batez be aniztasunari jagokiezan ideak azaleratu ziran. "Herri tolerantia eta irekia gura da, eretxi desbardinak onartzen dauzan herria, dinamikoak, parte-hartzaileak, batua eta solidarioa" partaideen arabera.

Hurrengo saioetan, sistematizatzeko dokumentuagaz egin dabe behar eta talde eragileen prestakuntzeari ekin deutse.

Bidearen erdian

Gogoa eta Abian faseen ostean, erdibidean dagoz arteztarrak herriko kultura dinamizetako prozesuan. Hurrengo fasea, Bidean izeneko da, eta hiru saio osotuten dabe; apirilaren 15ean, 23an eta 29an izango dira saioak. Maiatzaren 14an izango da azkena, Artean izeneko fasekoa.

Prozesu honeguz, besteak beste, herrian kalidadezko kirol-kultur ekintzak, jai parte-hartzaileak eta kultura ondarea jagotea bermatu gura dabe arteztarrak.



Arteztarrak herriko kultura dinamizetako prozesuko batzar baten.

UDABARRIKO LORAK

Gorbeia inguruko udabarriko lorak

Udabarria hasi da eta inguruko mendietan forma, tamaina eta kolore ugariako lorak agertuko dira momentu desbardinetan. Belen Lopez Astondoak gure inguruko udabarriko lora batzuen argazki ederrak dakarz orrialde honeetara. Hurrengoan, mendira joaten garanean eta loraren bateri begira geratzen garanean, apur bat gehigo jakin daigun.

Erredakzinoa

Basoetako mingotsa. (*Oxalis acetosella*. Gaz.: Aleluya, Acederilla)
Oso ohikoa haretzen eta pagoen artean, leku ilunetan sortzean da. Lurralde osoan dago, 0-1450 m. arteko altueran. Loraldia martitik maiatzara arte izaten da. Gorbeian ateratako argazkia.



Gibel bedarra. (*Hepatica nobilis*. Gaz.: Hepática)
Basoetan bizi da, argi gitxiko lekuetan, harrien artean. 10-2000 m. arteko altueran ohikoa da. Loraldia zezeilatik bagilera arte. Gorbeian ateratako argazkia.



Korradu bedarra. (*Ranunculus ficaria*. Gaz.: Celedonia menor)
Oso ohikoa lurralde osoan. Lur hezeetan egoten da, basoetan, uretatik hur. Loraldia urtailatik garagarriera arte da. Areatzan ateratako argazkia.

**Lilipa.** (*Narcissus sp.* Gaz.: Narciso)

Espezie ugari ditu familia honek, leku askotan bizi daiteke, lur hezeetan, basoetan, harrien artean... 0-2000 m. arteko altueran. Loraldia zezeilatik maiatzera arte izaten da. Areatzan ateratako argazkia.

**Malba arrunta.** (*Malva silvestris*. Gaz.: Malva común)

Oso ohikoa lurralde osoan. Ortuetan, eskonbreretan... topau daiteke. Loraldia aprilatik urrietara arte da.



Oroilore. (*Myosotis sp.* Gaz.: Nomeolvides)

Espezie ugari ditu. Leku heze eta ilunetan bizi da. Lurralde osoan, 0-1900 m. arteko altueran. Loraldia aprilatik garagarriera arte izaten da. Lamindaon (Dima) ateratako argazkia.



Pasmo bedarra. (*Anagallis arvensis.* Gaz.: Mújares)

Oso arrunta leku guztietan, 0-1100m. Loraldia martitik urrietara arte da. Lamindaon (Dima) ateratako argazkia.



Udabarriko lora, Ostioska. (*Primula eliator.* gaz. Gazt.: Prímula)

Hezetasuna dagoan lekuetan, basoetan, larreetan... hazten da. 400-1500 m.ko bitarteko altueran. Loraldia urtailatik bagilera arte. Gorbeian ateratako argazkia.




Eszila. (*Scilla lilio-hyacintus*)

Pago basoetan, hezetasuna dagoan lekuetan, lur emonkorretan... hazten da lora hau martitik bagilera arte. Areatzan ateratako argazkia.




Txilar kantauriarra, Ainarra kantauriarra. (*Daboecia cantabrica.* Gaz.: Brezo vizcaino)

Oso arrunta. Harrien artean hazten da, lur azidoetan. Eguzkia gustetan jako. 0-1200 m. bitarteko altueran. Loraldia aprilatik urrietara bitartean. Gorbeian ateratako argazkia.



Orkideak. (*Ophrys sp.*)

Orkidea honek insektu baten itxurea hartzean dau. Gorbeian ateratako argazkia.



Urtailatik aurrera
Gorbeia inguruan lora
asko ikusi leitekezan
arren, udabarria da
horretarako sasoirik
onena

Bizkaifisios SLk
bi zentro ditu
**Fisioterapia
Zentroa
Igorre**
Elexalde 4
Telefonoa 94 631 55 08

**Andra Mari
Klinikea**
Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1 Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64

www.bizkaifisios.com

agoa Ortodontzia
hagin klinika Inplanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia

Bidebarri 1, behea
48140 Igorre-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalejota Zerbaita: 900
R.P.S. 31/06

**ASESORÍA
Gorbeialde**

Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Kili-Kili Umeen denda

Umeen denda
94 673 63 51
Agirre Lehendakaria 10
Igorre
kilkiligorre@gmail.com

**arratiako
instalazioak s.l.**

Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea
Fab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

Olaxte OPTIKA ZENTROA

Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gubitua
Begiko tentsinoa
Lentillen adaptazioa
Kiroletarako betaurrekoak

Sabilno Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 - olaxteoptika@hotmail.es

FUTBOLA

Urtzi Iriondo: "partiduak menperatuten doguz, baina azkenengo pausua falta jaku, gola sartzea"



Urtzi Iriondo.

Zeberioko Urtzi Iriondo, Bilbao Athleticeko jokalaria, hamar-hamaika urte gaz hasi zan Athletic-eko kimu mailako taldean eta Athleticen jokatuten dau harrezkerotik. Bilbao Athletic 2. A mailan dago denporaldi honetan, baina sailkapenean ez dago ondo taldea eta gatz egingo jako igaz lortutako kategoriari eustea.

Erredakzioa

Igaz lortu eban Bilbao Athletic-ek 2. A mailara pasetea. Igoera fasean egon ziran. Zelan bizi izan zenduan hori?

Ni 2. B mailan nengoaneko lehenengo urtea izan zan eta suberte handia izan neban i goera hori disfrutau ahal izan nebalako. Sano pozik

nago urte horretan Bilbao Athleticen nengoalako.

2. B mailatik 2. A mailara pasatukeran, alderik somatu dozu?

Bai. 2. A mailan jokariak kalidade askoz handiagoa daukie eta partiduak askoz hobeto landuten dira; izan be, pausu batera zagoz lehenengo mailara igoteko eta igartzen da alde.

Momentu honetan Bilbao Athletic azken postuan dago taulan eta gatz dauka kategorian mantenidutea. Partidu onak egiten zabize baina azkenean galdu egiten dozue. Zergaitik? Zer gertatzen da?

Egia da. Guk ondo konpetiduten dogu, partiduak menperatuten doguz baina azkenengo pausu hori falta jaku, gola sartzea edo. Lanean jarraitu behar dogu. Azken finean, filial bat gara, gazteak gara eta etorkizuna daukagu aurretik gauzak egiteko.

Cuco Ziganda da zuen entrenatzailea. Gustura zagoze beragaz?

Bai. Zigandari gustetan jako Lezamara etortea, gustetan jako futbola, gustetan jako kluba, gustetan jako egunerokotasun horretan lan egitea eta bera pozik dago hemen. Gu be, danok, pozik gagoz beragaz eta asko ikasten gabiz.

Lehengo San Mamesen eta barrian, bietan jokatu dozu. Aukeraterik balego, zein aukeraturko zeunke?

Lehengo San Mamesen partidu bi jokatu nebazan, konpetizino baten, ez dakit ze kategoriatan izan zan. Desbardinak dira lehenengo San Mames ha eta oraingoa, baina bai ordukoa, bai oraingoa, biak, gustukoak dodaz, ni biakaz geratuten naz. Biak dira oso bereziak, Athleticen zaporea biak daukie.

Zeberio herri txikia izan arren zeberioztar batzuk badagoz edo egon dira Athleticen: Añibarro entrenatzailea, Uria zana presidentea izandakoa... eta zu zeu.

Zeberion kirol zaletasun handia dago. Eta futboleak bakarrik ez, kirol askotan dagoz zeberioztarrak.

Zelan ikusten dozu zure etorkizuna futbolean?

Nik gurago dot egunerokoari begiratutea eta lanean jarraitutea. Ez naz etorkizunari begira egoten. Hori bai, etorten dana eskuak zabalik hartuko dot, jakina.

MENDIA

Kolazinoko Mendi Eguneko BTT proba Julen Zuberok irabazi eban

Erredakzioa

Julen Zuberok lemoaztarrak gizonetara eta Cristina Olivak andrazkoetara irabazi eban Kolazinoko II. Mendi Eguneko BTT lasterketea. Mendi lasterketan, barriz, Julen Ozaeta eta Zuriñe Frutos izan ziran irabazleak. Asier Egia izan zan lehenengo bediatarra mendiko bizikletan.

Oinezkoen mendi lasterketan, lehen arratiarra Xabi Kantsau izan zan. Saria be izan eban mendi lasterketa kronometrauan, gizonetara, Ibon Bilbaok eta andrazkoetara, Uxua Barandiaranek. Beteranoetan, Anartz Azurmendi eta Leire Monasterio heldu ziran lehenengoak helmugara.

Partaidetza handia

Antolatzaileen aurreikuspenak kontrakoak izan arren, partaide-

tza handia egon zan Kolazinoko Mendi Eguneko proba guztietan; izan be, igaz baino 100 lagun gehiagok hartu dabe parte aurtan.

Mendi martxea, mendi lasterketea, BTT eta herrian egun osoko jaia antolatuteko 120 boluntario inguruk egin eban behar. Horreri esker, boluntario asko egon ziran ibilbidean eta partaideak pozik geratu zirala dinoe antolakuntzakoak. BTT proban, zauritu bi egon ziran, "erreku-perazino ona opatu deutsegu eta datorren urterako dorsala ziurtatuta daukiela" helduarazo gura deutsee antolakuntzatik. Era berean, antolakuntzak esker-erak emon gura deutsez proiektu honen parte izan diran guztiai, babesle, laguntzaile, bolondres eta parte hartzaile guztiai "gure lasterketea euren egin eta gure ametsak posible egitearren".



Proba desbardineta saridunak.

www.alkizabal.net
alkizabal@alkizabal.net
Zabalik 07:00 - 19:00

ALKIZABAL

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA
Amorebieta-Lemoa bidea
Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26
48330 Lemoa (Bizkaia)



KÄRCHER
Banatzaile ofiziala

















• Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.
 • Garraio zerbitzua.

ESKALADEA

Itziar Zabala Euskal Herriko txapeldun eskaladako bloke modalidadean

Erredakzinoa

Itziar Zabala dimoztarrak irabazi eban Euskal Herriko Bloke Txapelketea. Txapelketea, Bilboko Piugaz rokodromoan jokatu zuen martiaren 12an eta Esther Cruzek eta Marta Camarak osatu eban podiuma.

Goizean kanporaketea jokatu zuen. Hogei bloke egozan eta ordu t'erditan bloke gehien egin ebezan eskalatzaileak pasatu ziran finalera. Finalean, Zuriñe Arrue, Miriam Mulas, Ane Mujika, Marta Camara, Esther Cruz eta Itziar Zabala neurtu ziran. Eskalatzaileak, lau bloke ebezan eta lau minutu bloke bakotxerako, besteak zer

eta zelan egiten eban ikusi barik.

Txapelduna pozik agertu zuen egindako behararen emoitzeagaz. "Aurten gogor entrenetan nabil. Faltan gehien botaten do-



Itziar Zabala.

dana harrian gehiago eskaleten da. Laster baten hasiko naz nazinoarteko txapelketak jokatzen. Urte luzea dator" azaldu eutsan BEGITURI Itziar Zabalak.

Europako goi-mailako estiloan

Zabalaren eretxian, Europa mailan bloke modalidaderako dagoan rokodromo onenatarikoa da Bilboko. Gianni Faggiana entrenatzaile italiarrak diseinatu ebezan blokeak eta "txapelketa modalidadeak aurrerapausu handia emon dau betiko errutinatik urten eta Europako goi-mailako estilora moldatu dalako" dino txapeldunak.

ERRUGBIA

Arratiko Zekorrak-ek ezin izan eutsan Uribealderi irabazi



aprilaren 1ean.

Aurreko partidua biak etxean jokatu ebezan arratiarrak, San Txisme zelaian, eta biak irabazi ebezan, aurkariak hutsean itxia kasu bietan. Martiaren 19an La Unica RTren kontra jokatu eban 45-0 irabaziz. Aurreko partidua martiaren 5ean izan zuen. Orduan Gaztediren kontra jokatu eban arratiarrak eta 26-0 izan zuen emoitzea.

Erredakzinoa

Partidu bitan irabazi eta aurkaria hutsean itxi ostean, galdu egin eban Arratiko Zekorrak errugbi taldeak, Plentzian jokatutako partidua. Uribealde 22-6 irabazi eutsan

Errugbi eskolea

Arratiko Zekorrak RTk errugbi eskolea dauka. Igorreko errugbi zelaian izaten da barikuro, arratiko 17:00etatik 18:00ak arte. Bost urtetik gorako "guztientzat" zabalik dagoala dino Eder Aribas Arratiko Zekorrak taldeko jokalaririk.

begitu

arratia ubide zeberio

ez da debalde



"Albait gehienok apur bat emon daigun gitxi batzuk dana emon ez dagien".

Izan zeu be Begitu-laguna!

ARGAZKILARITZEA

Argazkilaritza jaialdia
Areatzan aprilean zehar**APRILAREN 7. - MAHAI-INGURUA**

EMAKUMEAN ETA ARGAZKILARITZA
- Eva Parey (Kazetaritza argazkilaritza eta argazkilaritza dokumentala)
- Gema Amugaita (Natura, bidaiak, landa eremu argazkilaria)
- Josune Mtz de Albeniz (Marca egunkariako lein argazkilaria)

APRILAREN 8. - HURRENGO TAILERRA ETA PHOTOCALL

- 8 eta 12 urte arteko haurrentzako tailerra, ludoteka, 17:00-19:30
- Photocall - 19:30ean Ilargi Kalean

APRILAREN 10. - HITZALDIA: AUTOR ARGAZKILARITZA

- Jon Urbe (Kazetan argazkilaria)
- Areatzako Udaletxean, 19:30ean.

APRILAREN 15. - ARGAZKI-MARATONIA

- 11:00an Areatzako Plazan
- Dinariak www.ariatza.net/webgunean ikusgai

APRILAREN 20. - HITZALDIA: NAJIBATEKO LAIA

- Javi Juliok (Irrele argazkilaritza kazetaria)
- Areatzako Udaletxean 19:30ean.

APRILAREN 20. - HITZALDIA: ETXARROKETA

EUSKAL GAZTAKAREN PASARIEK
- Ander Gillenea (Gure historiaren pasariak, argazkilaritza kazetari baten hogei urteko atzera begirakoa)
- Ilargi Kalean 17:00 - 21:00

APRILAREN 20. - AMAIERAKO JAIA

- Protekzioa kalean
- Vomitando Desperdicios taldearen kontzertua Gaztetxean.

ERAKUSKETAK - APRILAREN 10 ETXAN

* Al son del Punk
* Autorea: Josu Trueba Leiva
* Lekua: Hagina Taberna
* bostokphoto.com

* Music Snapper
* Autorea: Stuart McDonald
* Lekua: Hotel Bañerario Areatza
* musicnapper.com

* Gastronomía y Erotismo
* Autorea: Mikel Alonso
* Lekua: The Quiet Corner eta Bixer taberna
* mikelalonsosfoto.com

* Kasleen erakusketak
* Autorea: 2013-14ko ikasturteko ikasleak
* Kalean

ERREDAKZINOIA Hotel Areatza
*** Balezario

Erredakzioa

Areatza Photo Fest jaialdia antolatu dabe udalak eta Bostok Photok. Beste gauza batzuen artean, argazkilaritza gainera berbalduak, mahai-ingurua, erakusketak eta tailerrak egongo dira aprilean zehar.

Andrak eta argazkilaritza gaiaren gainera mahai-inguru batek emongo deutso hasikerea Photo Fest jaialdiari. Eva Parey kazetaritza argazkilaria, Gema Arrugaeta natura eta biajeetan espezializaturak eta Josune Martinez de Albeniz Marca egunkariako argazkilaria landuko dabe gaia apirilaren 7an, udal aretoan. Hurrengo egunean, 8 eta 12 urte bitarteko umeentzako tailerra egongo da ludoteka 17:00etatik aurrera. 19:30ean, Ilargi kalean Photocalla egongo da; hau da, eszenaleku moduko bat ipiniko da jentek bertan argazkiak egin dagiazan.

Argazkilaritza jaialdian, hiru berbaldu egongo dira, hilaren 14, 21 eta 29an autore argazkilaritza, giza eskubideak eta Euskal Herriko gaztaren ingurukoak, hurrengo hurrengo. Lehenengoa, Jon Urbe kazetari argazkilaria egingo dau Areatzako Udaletxean 19:30ean. Hurrengoan, Javi Juliok, Nervio

Photoko kideak, Ukrainan, Jordanian eta Grezian bizitakoak kontau eta erakutsiko dau 19:30ean. Azkenik, 29an, Ander Gilleneak Euskal Herriko gatazkan zentratutako bere 20 urteko ibilbide profesionala azalduko dau berbaldu eta erakusketaren bitartez 17:00etan Ilargi kalean.

Gura dauanak hartu daite parte apirilaren 16an egingo dan fotomaratoian. Hitzordua, plazan da goizeko hamaiketan.

Erakusketak taberna eta kaleetan

Hile osoan argazki erakusketak egongo dira hainbat taberna eta kaletan. Holan, Hagina tabernan Bostok Photoko Josu Trueba Leivaren *Al son del punk* bildumea egongo da ikusgai; Hotel Bañerarioan, Stuart MacDonald-en *Music Snapper*; Bixer tabernan eta The Quiet Corner-en Mikel Alonso-ren erotismo eta gastronomiaren gainera argazkiak, eta herriko kaleetan, 2013-2014 ikasturteko ikasleen lanak erakutsiko dira.

Photo Fest jaialdiari amaiera emoteko, hilaren 30ean, proiektzioak egongo dira kalean eta Vomitando desperdicios taldeak kontzertua eskeiniko dau Gaztetxean.

ZINE KLUBA

Zentsurautako hiru pelikula
Igorreko zine klubean**Taxi Teheran.****Erredakzioa**

Salt of the Earth (Herbert J. Biberman, 1954), *Viridiana* (Luis Buñuel, 1961) eta *Taxi Teheran* (Jafar Panahi, 2015) filmak ikusi ahal izango dira Igorreko Kultur Etxean, apirilaren 14an, 21ean eta 28an hurrengo hurrengo. Hiru filmok

zentsurauta egon ziran euren herrialde eta momentu historikoan. Saio guztiak 20:00etan izango dira.

Salt of the Earth filma, 1951n Nuevo Mexicon kokatutako Empire Zinc Company-ren benetako gertaeran oinarrituta dago. Michael Wilsonen idatzi eban, Paul Jarricok ekoiztu eta Bibermanek

zuzendu eta hirurak egon ziran Hollywoodeko zerrenda baltzean, komunismoaren alde egitea egotzita. Feminismoaren ikuspuntu sozial eta politikoa agertzen duan lehenengoetako filma da *Salt of the Earth*.

Bertan kontetan da jatorri mexikar-estadubatuareko beharginak, anglosajoi jatorrikoak baino soldata eskasagoa kobretan ebela lan bardinagaitik. Diskriminazio hau zala-eta, greba luze eta zaila egin eben Empire Zinc Company-ko beharginak eta greba horretan andrak papel garrantzitsua jokatu eben.

Hurrengo egunean, hilak 21, Luis Buñuelek zuzendutako *Viridiana* pelikula ezaguna eskeiniko dabe Igorren. Filma galarazota egon zan Espainian Francoren garaian, 17 urte luzez. Pelikulea, Benito Perez Galdosen nobela baten dago oinarrituta. Pelikuleak kontetan dauana da Jaime jauna bakarrik bizi dala, emaztea ezkontza egunean hil zanetik. Komentuan bizi dan Viridiana lobe, bisitan joako eta Jaime harriztuta geratuko da lobeak andrea zana-gaz daukan antza ikusita.

2015eko pelikula bat

Zentsura ez dala bakarrik beste sasoi bateko kontua erakusteko zine klubeak 2015ean egingadako pelikula bat aukeratu dabe zikloa zarratuteko. Jafar Panahi irandarrak zuzendutako *Taxi Teheran* da hori pelikuliori. Pelikulan, taxi batek Teheraneko kale koloretsuak zeharkatzen ditu. Gidariak bidaiariak alkarrizketatzen ditu, eta honek euren eretxiak emoten dabez. Gidaria filmaren zuzendaria bera da, eta kotxeak aginte-mahian kokatuta dagoan kamera batez filmatzen ditu ezkutuan iraniarren bizitzak.

ANTZERKIA

Umeentzako kontzertua
txotxongiloakaz Igorren**Erredakzioa**

La Enana Naranja taldeak, apirilaren 15ean arrastiko bostetan, *Kontukantari* izeneko ikuskizuna eskeiniko dau Igorreko Kultur Etxean. Euskerazko hamar haur-kantuen kontzertua txotxongiloakaz izango da. Roberto Castro "Boti" k joko dau musika eta Sandra Fernandez Agirrek Txiki Txikia, Txakur bat, Sorgina Pirulina, Baga Biga, Ixil-ixilik eta beste kantu ezagun batzuk kantauko ditu. Txotxongiloak Itziar Fragua, Iñigo Eibar eta Marta Alvarezek egin ditue.

Kontukantari oroimenean daukaguzan abestiak biltzean ditu,

reaggea, rap-a edo blues-a lango eritmoetara eroanez. Txotxongiloen laguntzeagaz, musikariak betiko abestiak berrikusiko ditue, nagusiak ahaztu ez dagiezan eta txikiak ikasi dagiezan. Eta holan ikusiko doguz,

Arratoitxoak itsasontzi batera igoten, beharrera joan gura ez daben Txonbo eta Ziku, edo Nana eta Granu azokan txakur bat erosten.

Ipuin kontalaria

Egun berean, seiretan, Ines Bengoa ipuin kontalaria saio bi emongo ditu Igorreko liburategian. Lehenengoa, seiretan, 3 eta 5 urte bitarteko umeentzat izango da, eta bigarrena, sei t'erdietan, sei urtetik gorakoentzat.



IRAKURZALETASUNA

Igorrek eta Lemoak, Irakurri, gozatu eta oparitu egitasmoan hartuko dabe parte

Erredakzioa

Apirilaren 1etik, maiatzaren 31ra arte, Irakurri, gozatu eta oparitu ekimenaren hamargarren edizinoa izango da, euskaltzale alkarte, liburutegi publiko eta liburutegiak alkarlanean antolatuta. Edizino honetako barrikuntzarik iportanteena, Patxi Zubizarreta idazleari eskatutako 50 liburu gomendatuen zerrrendea da, bost adin tartetan aurkeztuko dana.

Euskal Herriko 50 herritan ipiniko da martxan. Arratian, Igorre eta Lemoan. Egitasmoa tokian tokiko euskaltzaleen alkarleen, udalen, liburutegiaren eta liburu dendaren alkarlanari esker gauzatzen da. Arratian, Euskaltzaleen Topagunea eta

Igorre eta Lemoako Udalak antolatu dabe. Igorreko Euskera Zerbitzuak, Lemoako Euskera Zerbitzuak, Lemoako Udal Liburutegiak, Igorreko Udal Liburutegiak, Marra paper dendak, Orrie liburutegiak eta Elkar liburutegiak hartzean dabe parte.

Egitasmoaren helburuak dira herritarak irakurten animetea, irakurtearen alde atsegina azpimarratzu, eta liburutegi publikoen zerbitzuen erabilera sustatzea. Parte hartzea sarrituen dau ekimenak, liburuak erosteko bentaja ekonomikoak emonaz.

Irakurri, gozatu, oparitu

Kanpainaren izenak berak erakusten dauanez, hiru pausu emon be-

har dira parte hartzeako. Lehenengo pausua irakurtea da, euskeraz irakurtea. Horretarako, herriko liburutegi publikora joan, eta euskerazko edozein liburu maileguan eskatu daiteke. Liburuak irakurri ondoren, liburutegira itzuli, eta fitxa bat bete beharko da, zein izan dan irakurritako liburu esanez eta eretxia emonaz. Fitxa hori beteta, liburuazainak erosketa-txekea emonago deuto irakurleari, hitzartutako liburu dendan erabilteko. Azken pausua liburuak oparitzea da, lagun bateri, senide bateri edo norbere buruari.

Liburutegian jasotako erosketa-txekeak, euskerazko beste edozein liburuaren prezioaren % 35 ordaintzeko aukerea emoten dau.

Literatur jarduerak

Irakurri, gozatu eta oparitu ekimenaren bueltan bestelako literatur jarduerak be antolatuko ditu Euskaltzaleen Topaguneak. Beste batzuen artean, solasaldiak idazleakaz, liburu azokak eta irakurketa musikatuek egingo dira. Egitasmoak honako argitaletxeen laguntza izaten dau: Alberdania, Erein, Elkar, Ibaizabal, Pamiela, Txalaparta eta Susa.

Euskaltzaleen Topagunea 1997an sortu zan, eta Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako 90 Euskara Elkartek osotuten dabe, BEGITU argitaratuten dauan Zertu Kultur Elkartea, bame. Alkarleen zein mobimentuaren beraren helburua euskerearen erabilera sustatzea da. Horretarako, hainbat esparru landuten dabez: haur eta gazteen aisialdia, kultur gintza, tokiko hedabideak, mintzapraktika eta entidadeak euskalduntzea eta sentiberatzea.

URTEURRENA

Aprilean urteurrena ospatuko dau Igorreko Kiñu Gaztetxeak

Erredakzioa

Igorreko Kiñu Gaztetxeak urte bi beteko ditu aprilean eta ospatuteko hainbat ekitaldi antolatuten dabez. Dokumentala, kontzertua eta umeentzako jaia dira ekitaldi horreetako batzuk.

Egitaraua ez dago zarratuta, baina aldaketarik ez badago, domekan, aprilak 10, Eizu Change azokea egongo da eta 13:00etatik aurrera, egun horretarako beren beregi sortutako The J.F.'s taldeak, blues, soul eta funk estiloetako kantuen bersinoak eskeiniko dauz bermutaren ordua alaitzeko.

Hurrengo barikuan, hilak 15, umeen eguna izango da eta Kiñu Urteurren Txiki Jaian Txuski eta Purruski pailazoak egongo dira

18:30ean Gaztetxean.

Hilaren 22an, *Gure kabuz ala hil* dokumentala ikusteko aukerea egongo da arrastiko 19:30ean. Dokumentala, eurak euren burua definitzeko berbakaz "sei gazte prekariok" egin eben, Euskal Herrian "kapitalismoaren logikatik kanpo eta autogestioan oinarrituz bide propioak" egiten dabizen proiektuak ezetu eta ezetuten emoteko. Izan be, gazte mobimentuan alternatiben inguruko eztabaidea sortzeako helburuak egin dabe dokumentala.

Apirilaren 23an eta 29an be egingo dira ekintzak urteurrena ospatuteko, baina oindino ez dago zarratuta eta aurrerago emonago dabela horreen barri jakinarazo dabe Gaztetxetik.



DUNBA

Donibane Garazi eta Baionan Igorreko institutukoak

Arratia Institutuko ikasleak

DBH 4. mailakoak Iparraldeko herritxo esanguratsu bi bisitetako txangoa egin genduan, Donibane Garazira eta Baionara. Hainbat aldiz historia ikasgaien aitatutako herritxoak ezetuteko aukera bikaina izan genduan, baita bertako euskera berbetea entzuteko bere, hasikeran aitzia kostatzen bajakun bere, azkenerako polito moldatu ginan.

Donibane Garazi herrian, goikaldean dagoan institutura abiatu

ginan eta tontorra jo bere bai; bertatik herria ikusteko abagune paregabea izan genduan (argazkia begiratzea besterik ez dago). Herri honek danetarik dauka: mendiak, ibaia, eleiza, plaza, "kas-ku" edo alderdi zahar ikusgarria, herria inguratzen dauan harrizko hesi ikaragarria... Bertan bazkaldu genduan, etxetik eroandako janariak gainera, hain famaduak diran bertako crepak be dastatu genduzan, gogoratzeak berak tripak urrumaka jarten deuskuz, gozoak zer ziran, ba!



Autobusa hartu eta Baionara jo genduan, bertan katedral liluragarria miatu genduan: kanpokaldea, barrikaldea, klaustroa... zer ez!

Gero uritik zehar, kalez kale ibili ginan eta hain entzutetsua dan txokolate apur bat etxe koentzat erosi eta barriro autobuserantz joan beharra izan genduan... Di-

da baten pasau jakuzan minutuak. Gozaten zagozanean minutuak iges egiten dabe, oster, aspertuta zagozanean txikle luzatua baino luzeago egiten jatzuz segundoak. Hurrengoan gehiago!

Aukerarik badozue, ez izan zailtzarik, joan eta bizi Iparraldeko herritxo bi horreek, animo!



AGENDEA

APRILAK 4
AREATZA

Hilaren 30era arte, argazki erakusketak Hagina tabernan, Hotel Balnearioan, Bixer tabernan, The Quiet Corner-en eta kaleetan.

DIMA

Hilaren 29ra arte, jaietako kartel eta zapiaren irudi lehiaketarako lanak aurkezteko epea. Udaletxean.

LEMOA

Hilaren 13ra arte, Bigarren Eskuko Azokan parte hartzeako izen emotea Udaleko Kultura Zerbitzuan. Azokea apirilaren 17an izango da.

Apirilaren 23ra arte Lemoako V. Narrazino Lehiaketara lanak aurkezteko epea zabalik.

IGORRE

Hilaren 10era arte, NATOren inguruko argazki erakusketara Axular Herriko Tabernan.

ZEBERIO

Hilaren 21era arte, izena emon daiteke 25ean tamainu handiko hondakin solidoak jaso dagien. Udaletxean.

APRILAK 6
IGORRE

Zapatuan (hilak 9) San Kristobaleko txokan egingo dan kantu afarirako tiketak erosteko azken eguna. Gau Lora eta Rugby tabernan.

19:30ean, Jardunaldi Internazionalistak. Braslgo Nekazal Mobimentua eta MST Axular Herriko Tabernan.

APRILAK 7
AREATZA

19:30ean, mahai-ingurua Eva Parey (kazetaritzako argazkilaria eta argazkilaritza dokumentala), Gema Arugaeta (natura, biajeak) eta Josune Martínez de Albeniz (Marca egunkariako argazkilaria).

20:00etan Areatzako Euskera Batzordearen batzar zabalda udaletxeko 3. solairuan.

IGORRE

19:00etan, Jardunaldi Internazionalistak. Gabirel Ezkuriaren berbaldia "Siriako gerra eta ondorioak". Kultur Etxean.

APRILAK 8
AREATZA

17:00etan, argazkilaritza tailerra 8 eta 12

urte bitarteko umeentzat ludotekan; 19:30ean Photocall-a Iargi kalean.

19:00etan, Jai Batzordearen batzarra liburutegian.

IGORRE

20:00etan, Jardunaldi Internazionalistak. Donbass: Gerra Europaren bihotzean dokumentalaren aurkezpena Ibai Trebiño zuzendariaren eskutik. Lasarte Aretxan.

20:00etan, kantu-pote Eguzki tabernatik hasita.

LEMOA

Kiroldegiko inkestea aurkezteko azken eguna.

22:30ean, Bi Bala eta Pelax-en kontzertuak Karabie Gaztetxean.

APRILAK 9
AREATZA

08:00etan, Lamino Mendi Taldeak antolatuta, Aiako Harriak eta sagardotegira urtekerea. Elurretxe-Irumugarrieta (806 m.)-Txurmuuru (827 m.)-Erroilbide (837 m.)-Elurretxe. Eleiza portikuan.

20:00etan, Rusty-ren kontzertua The Quiet Corner-en.



Apirilaren 16an hasiko dira Arratiako Talentu Lehiaketako kanporaketak

Arratiako Zu bai Zu Talentu Lehiaketako castingera, 30 lagun edo-eta talde aurkeztu ziran. Epaimahaiak, danak be maila ona eukiela erexita, guztiak aurrera egitea ebatzi eban eta publiko aurrean erakutsiko dabe euren talentua lau ikuskizun edo galatan. Apirilaren 16an, 30ean, maiatzaren 21ean eta bagilaren 4an izango dira kanporaketa ikuskizunak Igorreko Kultur Etxean 20:00etan. Finala Igorreko jaietan izango da, bagilaren 12an.

Kanporaketak, kabaret ikuskizun moduan aurkeztuko dira, jantzak, kantuk eta beste trebetasun asko bilduz. Igorreko Udalak eta AMEK antolatuta dabe Zu bai Zu Talentu Lehiaketea. Irabazleak 1.000 euro eskudirutan eta 500 euro bonoetan izango dabe sarritzat.

Arratiakoa, Euskal Herriko lehenengo euskerazko talentu lehiaketea dala dino Ismael Pereira epaimahaioak eta castingetako epaimahaia harriritu geratu zala partaideen talentua ikustean. "Danetik egin genduan, negar, barre, ago zabalik geratu, jantzan egin...", baina politena, Arratiako jentea eszenaleku gainean ikustea izan zala dino.

BEDIA

10:00etan, familiako urtekerea Bediatik: zugatzak ezetuten. Plazan.

DIMA

Txakolin bazkaria Axpe Goikoa jatekxan. 13:00etan, aizkolariak, hamijasozaileak, jantzariak eta txakoli eta kanape dastaketea; ondoren, txakolin bazkaria; arrastian erromeria Jokaldi taldeagaz.

IGORRE

Jardunaldi internazionalistak. 12:00etan, gosari-berbaldia Simon Bolívar koordinakundeko Gustavo Rodríguez-egaz Axular Herriko Tabernan; 13:30ean, kalejireta eta ostein bazkaria; arrastian, bakarlarri kubatar baten emonaldia, Kiñu Gaztetxean.

19:00etan, Luzetu Barik sari banaketea Lasarten.

21:00etan, kantu afaria San Kristobaleko txokan.

22:00etan, zinea *Carol* Lasarte Aretxan.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, umeen urtekerea Indusi-Dima.

APRILAK 10
IGORRE

11:00etan, Eizu Change Azokea. 13:00etan, The J.F.'s taldea Kiñu Gaztetxean.

17:00etan, zinea *A zer nolako heroiak*; 19:30ean, *Carol* Lasarte Aretxan.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak urtekerea. Oroz/ Betelu. Elke (1.294 m.)-Jaun Done Jakue (1.232 m.)-La Corona (1.387 m.).

APRILAK 11
LEMOA

Hilaren 15era arte, Masterclass Crossfit-erako izen emotea kiroldegian.

APRILAK 12
DIMA

10:30ean, 14ra arte, Gurutze Goriak antolatuta, jubiladu eta pensiodunentzat internet ikastaroa.

APRILAK 13
AREATZA

Gorbeia Parke Naturalak antolatuta, metereologia tailerra umeentzat.

APRILAK 14
AREATZA

19:30ean, autore argazkilarizaren gaineko berbaldia,

Jon Urbe kazetari argazkilaria eskutik. Udaletxean.

IGORRE

19:30ean, errefujaduen harreraren aldeko taldea sortzeako batzarra Kultur Etxean.

20:00etan, zine kluba, *Salt of the Earth* (Biberman, 1954). Lasarte Aretxan.

APRILAK 15
ARTEA

18:00etan, Bidean, kultur dinamika saioa.

IGORRE

17:00etan, La Enana Naranjak *Kontukantari* antzerki kontzertua txobongloakaz. 18:00etan, 3-5 urte artekoentzat ipuin kontaketea; 18:30ean, 6 eta 10 urte bitartekoentzat. Ines Bengoa. Liburutegian.

18:30ean Txuski eta Purnuski pailazoak Kiñu Gaztetxean.

ZEBERIO

19:00etan, Austari Kultur Elkartek antolatuta, Kidam magoa. Plazako ermitan.

APRILAK 16
AREATZA

11:00etan, Fotomaratokia. Plazan.

14:30ean, Uparan, jubiladu eta pensiodunen alkarteak antolatuta, Antonio Rubiera medikuari agur bazkaria, Areatzako Hotelean.

21:00etan, Mr. Blue jazz hirukotearen kontzertua The Quiet Corner-en.

IGORRE

11:00etatik 13:00etara, Andren Jabekuntza Eskolearen gaineko jardunaldia. Kultur Etxean.

20:00etan, Zu bai zu Talentu Lehiaketea Kultur Etxean.

22:00etan, zinea *Cien años de perdón*. Lasarte Aretxan.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak urtekerea sagardotegira. Zarautz. Indamendi (462 m.)

11:00etan, Masterclass Crossfit kiroldegian.

APRILAK 17
IGORRE

17:00etan, zinea *Kung Fu Panda 3*; 19:30ean, zinea *Cien años de perdón* Lasarte Aretxan.

LEMOA

11:30-14:00 Bigarren Eskuko Azokea Elizondan.

Igitie azokea.

ZEBERIO

Austari Mendi Taldeak urtekerea Castro Grandera.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

BIZIKLETEA SALGAI

Focus Black Forest bizikletea salgai. Urkulea: Rock Shox Recon Silver RL 100 mm. Aldagailu eta biela: Shimano Deore XT. Osagaiak: Concept SL. Jantak: DT Swiss. Gurpilak: Mountain King. Barri-barria. 600 euro. 688 602 516 (Mikel).

DANERIK

APARKALEKU ITXIA

Karabanak, autokarabanak... gordetzeko aparkaleku itxia, pabilioi baten barruan. Plaza zabalak, zenbatuak, bakotxa aseguro eta alarmeagaz. Ur lohiak garbitzeko komuna. Arratian. 671 549 015 (Jon).

ZERAMIKA IKASTAROA

Zeramika ikastaroaren hasikerea urri bigarreanean! Astean ordu biko klaseak, arrastietan. Interesautaz bazagoz, animau eta deitu 615 731 182 telefonora (Saioa).

BEHAR BILA

Etxeko lanak egiten dodaz, 08:30etik 16:00ak arte. Kotxeduna. Dimoztarra. Telefonoa 634 438 725.

BEHAR BILA

Delineazio lanak egiten dodaz. CAFen esperientziaduna. Ingeniaria. Dima. Telefonoa 635 207 386.

BAZKIDE BILA

Arratiako euskerazko aldizkariak bazkideak behar ditu. Interesatuak 649 979 115 telefonora deitu.

PARKING PARTZELA ALOKAIURUAN

Igorren, Lehendakari Agirre kalean, parking partzela bi alokairuan. 30€ bakotxak. 659 395 911.

OPARITZEN DA

Urte t'erdiko artzai txakurra oparitzen da. Telefonoa: 635 207 386.


Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1. Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *100 años de perdón* filmarako.

Juan Manuel Etxebarria (Galdaka) Karmele Beobide (Zeanuri)



2. Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Carol* filmarako.

Matxalen Legarreta (Igorre) Argiñe Larrea (Dima)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,


zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 13

urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Koitadu. 2.- Bostehun erromatar.
Kolore askoko. 3.- Ezetza. Letra bat.
Tulioa. 4.- Bakarkakoa. 5.- (Atz.)
Birritan, umeen berbetan, txakur. Letra
bat. Persona gehien globuluetan
dagoan antigenoa. 6.- Hunkipena.
7.- (Atz.) Zerki atzizkia. Oxigenoa. Min
daukagunean dinogu. 8.- Ipar. Bokala.
9.- Hostaila.

GOITIK BEHERA

1.- Erlijinotasun. 2.- Letra bat.
Hauskor. 3.- India. Nitrogenoa.
Letra bat. Errubidioa. 4.- Lodikote.
5.- Odol mota guztien hartzaile.
Letra bat. Bokala. Jainkoa, hizkuntza
semitikoetan. 6.- Atsegina. Bokala.
7.- Azpila, oraska.




Topau zazpi sukaldari euskaldunen izenak.

A	Z	T	E	R	R	I	K	O	A
M	O	T	E	I	Z	A	I	A	G
E	D	B	O	K	E	R	U	R	U
R	A	E	J	U	S	K	A	G	R
O	B	R	A	T	A	I	Z	I	A
K	E	A	T	Z	U	B	Z	Ñ	I
O	G	S	R	O	S	E	I	A	M
P	I	A	S	T	E	L	R	N	E
A	A	T	N	O	R	A	U	O	L
D	D	E	M	A	I	S	D	R	O
I	U	G	O	R	J	E	A	O	S
U	R	I	K	O	L	I	R	P	O
Z	O	R	O	K	O	E	B	A	T
T	C	A	N	A	L	E	S	U	A
A	D	O	L	I	G	E	N	A	S

AKI MI KO

Zorrozkiilo



umean moda
sew
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 92 96 • sewmoda@hotmail.com

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu
Bixarra egin eta txukunduten dogu
Elexalde, 20 Rober ☎ 630 743 543
48.140 Igorre Manuel ☎ 661 848 793

AKEITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

KIRRU ILEAPANDEGIA
SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 beja - 48140 IGORRE (Bizkaia)
☎ 94 631 92 00

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ
ZEIN ERDARAZ
Balonak: A1, A, B77, #
Lehendakari Agirre 31
Tfnoa: 94 631 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@euskalnet.net

ASEGURUAK: AUTOAK, ETXEBIZITZAK, DENDAK, ISTRIPUAK, BIZITZA...
ZUZENBIDE
ABOKATUAK, ZUZ. ZIBILA, KONTSUMO ZUZ., ADMINISTRAZIO ZUZ., INGURUGIRO ZUZ.
AHOLKULARITZA, LAN ZUZENBIDEA, ZERGAK, KONTABILITATEA
Tf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a ☎ 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia ☎ 609-79-49-54

Dia %
PEDRO AUTOSERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta euskaraz zein erdaraz
Gorbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefona 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83
e-porla. urrozulu@euskalnet.net

MALU EGILUZ APOITA

"Herrietan lehenagoko erara dendatxoak, artisauak... bageunkaz beste kontu baten egongo ginan"

Hamar urte dira Zeanuriko Sagarnak barriro be atek zabaldu ebazala. Sasoian sasoikoa jan behar ei dan lez urteurrena hartu dogu Malu Egiluzegaz berba egiteko atxakia. Dendea baino gehiago dala kontau deusku Zeanurikoak, bizi proiektu bat. Baserritarra da Malu, eta elikadura burujabetzarako trenean agroekologiaren bagoian doa, herri zein mundu osora helduteko gogoz.

Irati Urien

Aprilaren 13an hamar urte beteko dira Sagarna zabaldu zala. Ze balantze egingo zeunke?

Askotan gelditan naz sensazioagaz hau denda bat dala baina denda honen ostean proiektu bat dago eta proiektua da baserri mundua eta gure herri ruralak apurka-apurka berbiztutea. Mundu mailako proiektua herri txikiak inongo estruktura barik ixtea da eta dana uri inguruetera erabateko jaun eta jaubeak, errez harrapetan gaitue. Askotan pentsetan dogu espazio handietan danetarik daukagula, merkeagoa dala... eta askotan ez gara konturatutuen horren atzean gu euren gatibu bihurtuten garala. Gure lurren aberastasuna ahaztuten dogu.

Ekarten dabean produktu gehienak, errekorridu laburren egiten dabena 5000 kilometro egiten dabez. Pentsetan dogu urtean zehar danetarik euki geinkela eta guk aukeratutuen dogula jan gura doguna baina benetan hori baino, tranpea da. Euren gura dabena, gura dabena sasoian eta gura dabena lekukoa da atzanean guk jaten doguna. Horrek estruktura galdu arazoten dau. Gure lurra bertan behera ixten dogu, gure aberastasuna, gure jakintzea... galera askoz handiago da, baina pentsaurik errezagoa dala denpora faltagaitik edo merkeago dalakotan errez eroaten gaitue euren espazioetara.

Ez da erreza horretaz konziente izatea; izan be, denporearen jaube be eurak egiten dira eta saltzean deuskue denpora gitxiago behar dogula eta presaka bizi garan mundu

honetan errezagoa dala holango espazio handiago batera joan eta bat-batean danetarik topetea. Horren atzean zer dagoan konturatutea ez da erreza.

Zabaldu zenduaneko helburuak eta oraingoak, bardinak dira?

Guztiz ez, baina neurri handi baten bai. Aukera emon deusta konzienteko izaten munduan zehar zer pasetan dan eta zelango interesak dagozan alimentazioan. Horrek aberastasun handia emon deusta persona lez. Hasieran nire baserria neuk bakarrik aurrera ater behar ne-bala pentsau neban, eta gaur egun gura dodana da gure herrietan eta munduan baserri askok egindako jana jaten barriro hastea. Hurbiltasun horrek askoz elikagai hobek eta askoz osasuntsuagoak emongo deuskuzala esan gura dau. Herrialde batzutan posible da hori daborduko, eta horrek gure ardura guztiz aldatuten dau, bai planeteaganako eta lurraganako eta harremanetarako eta denporarako.

Zein da zure dinamika?

Ohiturak aldatu egin dira. Gure kasuan okelea bakarrik salduta ezin zala bizi ikusi neban, orduan proiektua pentsau neban baina ez nik bakarrik egiteko, beste batzuk egiteko baino. Ogia egin... asko dibersifikau dot eta hori salmentara ekarri. Holango espazio baten behar egiteak ez deustu dana egiteko denpora nahikoa ixten; horregaitik, beste produktu batzuk egiten ebezan bailarako jentea ezetuten hasi nintzan. Alkarlan horrek askoz dibersidade handiagoa emoten deusku eta osotu dogun estruktura edo sare horrek gure elikagaiak barriro be berresku-

ratuteko eta beste batzuk konpartiduteko aukerea ekarri dau.

Filosofia "Baserriai eta herriari bizia emoteko bertako produktuak" esaldian batu dozu.

Ez da lokal honen filosofia bakarrik. Filosofia hori herri guztiai trasladatu gura deusket, herri guztiak estruktura euki dagiazan. Langabezia handia daukagu, herrietan lehenagoko erara dendatxoak, artisauak eta abar bageunkaz beste kontu baten egongo ginan.

Zer emon deusto Sagarnak honetan hamar urteetan Zeanuriri?

Sagaman alkartruke bat sortuten da, momentu gozoak emoten deusket, momentu gaziagoak... Askotan, kanpotik ikusita negozio moduan ikusten da hau, baina beste espazio bat da, ez hain hotza. Superficie handi batera zoazenean ez daukazu jesarteko momentu bat, hemen harreman kontaktuak egiten dira, erosten dabilen aurrekoagaz berba apurtxo bat egiten da... Sagaman barriro denporea eukitea sortzean da.

Zek bultzatu eutsun mundu honetan sartutera?

Momentu baten konturatu nintzan lepoa emon deusket baserri munduari. Txikia nintzala gurasoak zein inguru dana baserritarak izanda, eta munduan beste esperientzia batzuk ezetuta, ikusi neban ezin zala bertan behera itxi. Baserri bueltatu nintzanean, pentsau neban baserri mundu hori berbiztutea, nire baserri barriro be bizia emotea.

Laster konturatu nintzan egiten zana erara ezin zala baserria mantentidu, intermediarioak ez egoala hortik biziteko posibilidaderik. Hemen herrian harategia itxi zan eta zeozertxo zuzenean eginda behar bada posible zala pentsau neban. Era berean konturatu nintzan herrietako estruktura aldatuta egozala eta ezin zala harategiagaz bakarrik bizi; orduan, dibersifikau egin beharko zala pentsau neban eta lehenagoko dendetan danetarik saltzean zala. Eta lokal hau topau neban. Hemen aurrezdi Sagarna egoten zan eta zelana bertako janariak ospe handia eukien barriro bide hori berreskuratutea pentsau neban.

Jakintza aldetik ez zara zerotik hasi.

Gurasoak ekien guztia ez dot sekula jakingo. Zapalkuntza handia egon da. Baserritarra izatea atzerakoia iza-

"Sagarnan barriro denporea eukitea sortzen da"



tea zan. Gure ume denporan sentiduten neban askoz be estimauagoa eta aberatsagoa zala medikua edo beste edozein profesino, baserritarra izatea baino. Baserritarra analfabeta, gitxi ekiana zan. Hor galdu egiten zan autoestimua. Nik baserritarak miresten dodaz, mundu osokoak, ze jakituria daukien, bizia aurrera zelana ater leikien, zelana defendiduten dabena lurra eta ura, eta zelana herriar guztiontzako eskura ipinteko prest dagozan.

Zergaitik bide hau?

Hori zan bidea. Beti atezinoia gehien deituten eustena baserri munduko jentea izan da. Batez be leku askotan ondino indigenak dagoz eta euren biziak ume sasoiara eroaten nintzan, beti hurbiltzen nintzan eurakana, edo haziak eukazan landaraxo bat ikusten banaban hazi hareek hartuten nebazan barriro ereiteko. Konekzino hori neukan, berezkoa, naturala. Umezarako ametak moduan daukadaz auzoko amamak arastia pasetan zelana emoten ginan lurra landuten. Barriro hori behar neban. Ni giro horretan hazi nintzan eta zorionez gero munduak erakutsi eustan munduan hori behar dogula, barriro gure elikagaiak geuk egin. Subiranotasun hori gure esku egon behar da, industria handien esku badago ez daukagu etorkizun onik.

Jentea konziente da?

Esperientzia asko dagoz. Gauza asko erakusten eta emoten deuskue aukerea barriro konturatuteko zer pasetan dan. Neoliberalismoak esaten deusket gosea kenduteko munduan janari gehiago behar dala, baina janari gehiago ekoizten danean, jente gehiago hiltzen da gosez. FAOk berak dino baserri txiki askok kendu leikiela gosea munduan eta ez era industrialean egiten dan erara.

Nahiz eta danetarik euki ez dogu lortu gizarte zorionsuagoa izaterik, ez dogu hobera egin. Gu horretaz zenbat eta konzienteago izan gizarte hobe bat egiten saiatuko gara, ez gara goitik esaten deusketu izango. Ni baserria bueltatu naz eta horrek ez dau esan gura ehun urte atzera egin gura dodanik. Gura dodana da

baserria eta biziteko era saretzen joatea, bai andra moduan eta bai baserriar moduan.

Zelan ikusten dozu baserritarren egoera?

Etorkizun handia ikusten dot. Jente asko sensibilizetan dabil, batez be urietan. Igual herrietan bertan dagoan gauza bat danez ez deusketu hainbesteko garrantzia emoten. Baserritarren munduan garrantzitsuena elikagaiak egitea da. Gainera, geografia ikusten dozunean konturatuten zara baserritarak landuten dabean inguruak askoz be zainduago dagozala. Bertan behera daukaguz lurra, jentea behar barik... desoreka soziala, ingurumenarena... danena. Gauza asko dagoz ondino egiteko. Herri bat eregiteko era bat da. Gure Esku Dagogaz herri libre bat izateko elikagaiak behar doguzala landuten dogu, eta gaur egun ehuneko bata be ez dogu bertakoa ez jaten, ez produziduten.

Makina bat bider entzun da "Baserritik ezin leike bizi".

Bai, hori holan bizi da sektorean. Administrazioak proiektu moduan gauza handiak behar dirala dino eta ikusi da hori ez dala bidea, proiektu handiak gastu handiak eragiten dituelako eta askotan aurre egin ezinik baserri asko bertan behera itxi behar izan dira. Individualismoak eroan gaitu bakotzak bere traktore handia eukiten, inbenero handiak ipintzen, gastu handiak... Horrek ez deusto askotan baserri behar dauan duintasuna eta oreka emon.

Munduan zehar ibili zara.

EHNE sindikatu nago eta honen bitartez hartutako bidea ez era indibidualean bakarrik, era sozialago baten landuteko aukerea euki dot. Gure apustua sindikatutik elikadura burujabetza eukitea da, gure herri eta munduan. Sindikatua dala eta, Via Campesina hartuten dogu parte. Via Campesina baserriar txikien mobimentu bat da, mundu mailakoa. Holan ba, herrialde batzuk ezetuteko aukerea euki dot Via Campesinak daukan proiektu politiko horretan elikadura burujabetza agroekologikoaren bidez. Indonasiara, Brasilera edo Kubara adibidez. Ikusi dot taldeak zelana landuten dabena prozesu hori, baserritarren mobimentua. Herrialde batzutan proposamen politiko hori onartu egiten dabe gobernuak daborduko. Familiak eurak elikatzeko bidea izatea, sistema publikoan sartzea eta barriro be garrantzia emotea jaten dogunari, ekoiztu eta segiduan jateko posibilidade hori, osasuntsuagoak izatea... Ez da lehenengoa prozesua hasi dauana baina Kuban urte gitxitan hamaika milioentzako bertan produzidutea lortu dau.